

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Pong!**  
Munlet.  
Bi Batean /  
Screaminguy records.  
Iraupena: 26'13".  
10 euro.

## Punk elektronikoaren bidez, talde esanguratsuak azalera

MENDARO EXISTITZEN DELA egiaztatu digute; han dauka operazio zentroa Munlet bikoteak. Gitarra, programazio, sintetizadore eta bestelako aparailuek lagunduta, punk elektroniko ilun eta txirriantea egiten dute. Bigarren lan luze honetan Euskal Herriko eta atzerriko hainbat talderen kantuak euren erara bertsionatu dituzte: NCC, El Desv n del Macho, Cancer Moon, Eskorbuto, Decima Victima, AC-DC, Bowie, Haw-

kind eta beste hainbat. Inguruan antzeko sonoritatea duen talderik ez duten arren, bide propioa egin eta mugak apurtu zituzten Nuevo Catecismo Catolicoren *Noise!!Noise!!* bertsionatzen; baina askoz gehiago ere badago. Diskoa Josetxo Anitua zenari eskaini diote, eta hark egin zuen bezala talde interesgarri baina ezezagunak errebin-dikatu dituzte lan honetan. Binilo doto-rean kaleratu dute.

### Munlet

## «Bertsio bat egiteko garrantzitsuena da, originala entzutean guk berehala moldaketa irudikatzea»

Nola bururatu zitzaizuen omenaldi-diskoa egitea?

Idea aurreko diskotik dator. Orduan lege arazo batzuk medio, ezin izan genuen NCCren bertsioa nahi genuen bezala izendatu. Hala, kantu hori single batean kaleratzea pentsatu genuen, baina zuzenekoetan bertsio gehiago egiten hasi ginen; eta azkenean guztiak *Pong!* diskoan batu ditugu. Bi Batean-eko Unai-aren laguntza ere garrantzitsu izan da.

Zer behar du kantu batek "munletizatua" izan ahal izateko?

Badira estruktura zehatz batzuk guk kantu horiek moldatzeko egokiagoak direnak. Bestalde, izaera hipnotiko edo azkarrenak dituztenak ere aproposak dira guretzat. Baina, garrantzitsuena da originala entzutean guk berehala bertsioa irudikatzea.

Bertsionatu dituzten Euskal Herriko talde guztiak NCC izan ezik oso ilunak dira.

Soinu horiek sintetizadore, Korg MS-20 eta halako aparailuekin erabat lotuta daude?

Egia da 1980ko hamarkadako talde siniestroek halako soinuak erabiltzen zituztela, baina ez daukate batera joan beharrik. Gu, esaterako, saiatu gara El Desv n del Machoren

punk espiritua eta Cancer Moon-en kraut ukitua erakusten. Eta Eskorbuto-aren kantua beraiek disko musikaren parodia gisa idatzi zuten; eta guk gainetik parodiatu dugu: ezetza ezeztatuz baiezkoa bihurtu dugu.

Josetxo Anitua zenak ondo merezia zeukan onspena jasotzen dihardu. Zuek ere diskoa berari eskaini diozue...

Josetxo, batez ere, pasioa zen; gainera, inoiz ez zuen musika errazena egin, eta umiltasunez bihurtari egin zion kasu beti. Guretzat Josetxo ezagutzeak berebiziko garrantzia izan zuen.

Estiloari dagokionez, inongo lurrean zaudete. Eroso al zaudete?

Bai, ez gara horren bila joan, baina hala da. Dena dela, oso interesgarria eta kitzikagarria da, esperimentatzeko aukera asko ditugulako. Gainera, oso poliki ezagutzera ematen gabiltzan arren, oso harre-ra ona egiten digute. ■

